

## KOPLA ZAHAR BARRIAK

1

Aiene ta oiene  
egin daigun barre(2)  
gaurko lainoak bihar  
euria dakarre (2)

2

Baneuko ta baleuko  
balitz eta bazan (2)  
eskopetarik ez ta  
hor dabilta kazan(2)

3

Tringili-trangi dabil  
aspaldi Domingo (2)  
eleizan zuringo ta  
tabernan gorringo (2)

4

Beharraren aurrean  
kikili-makala (2)  
karta jokoan bada  
a zer astrapala! (2)

5

Zeintzuk dira hobeak  
andra ala gizon? (2)  
hasarretzen badira  
laster kirieleison (2)

6

Emotea danean  
mantxu eta tonto (2)  
hartzeko bada beti  
adi eta pronto (2)

7

Gauza bat da ekina  
beste bat ezina (2)  
ekinaren ekinez  
laster da egina (2)

8

Dagoana dago ta  
besterik ez hemen  
ezinaren aurrean  
esan daigun amen (2)

9

Etxean zer ikusi  
umeak ikasi (2)  
jakin gura badozu  
bada nundik hasi (2)

10

Zure faltak aurrean,  
nireak atzean (2)  
aza-porru onenak  
gure baratzean (2)

11

Bista ona ta alkar  
ezin ikusia (2)  
auzokoa beti da  
zikin itsusia (2)

12

Txapela buruan ta  
ibili munduan (2)  
sarri dabil iparra  
horren inguruan (2)

13

Gauez jipi ta jaupa  
ta egunez lolo (2)  
baztarretan bajabilk  
hamaika mozolo!

14

Agur, eskerrik asko  
oi Mari Belsko! (2)  
Hemen okaela gitxi  
eta salda asko (2)

15

Ezkongaietan bero  
ta kontuak gero (2)  
horrek dozak erroskilak  
Tomas barkilero (2)

16

Gaur goizeko berbia  
guzurra erdia (2)  
beste erdia nun dan  
heuk biztu argia (2)

17

Gixona beti gixon  
ta katua mixon (2)  
urak daroanari  
doala itxixon (2)

18

Oiloak kukurruku  
oilarrak karkaxo (2)  
oilategi horretan  
bizi dana gaixo...(2)

19

Beti gu ta gu ta gu...  
guk haxe daukagu (2)  
besteak irabazi  
ta guk dana galdu(2)

20

Ibiltari gauean  
logura goizean (2)  
haize freskua sarri  
holako etxean (2)

21

Kopla zahar ta barriak  
nahastean jarriak (2)  
danontzat izan beitez  
kontsolagarriak (2)